Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco - Sarrera/Entrada - 2022/03/31 - 11:59:33 - Zk./Núm.: 2232

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
ERREGISTRO OROKORRA
REGISTRO GENERAL
2022 MAR. MAR. 31
SARRERA/ ENTRADA 2232 IRTEERA/ SALIDA

**Dokumentu mota / Tipo de documento:** ZUZENKETAK

**Nori zuzendua / Dirigido a:** EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIA

**Proposatzailea / Proponente:** MOLINA, RAKEL (EA-NV)
ANDUEZA, ENEKO (ES-SV)

**Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario** EA-NV/ES-SV

**Data / Fecha** 2022.03.31

**Espediente zb / Nº de expediente** 12\09\01\0 \00017

**Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:** Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolarena//De Actividad Física y Deporte del País Vasco

EA-NV

ES-SV

| 1. ZUZENKETA: ALDATZEKOA | ENMIENDA Nº 1 DE MODIFICACIÓN |
|---|---|
| Zioen - azalpeneko hamazazpigarrem paragrafoa honela aldatzea proposatzen da: | Se propone modificar el párrafo 17 de la exposición de motivos del modo siguiente: |
| Hau dioen lekuan: | Donde dice: |
| *V. tituluak euskal kirolaren elkarte-egituraren segmentuak arautzen ditu, eta Lisboako Tratatuan aitortutako kirolaren izaera espezifikoa du abiapuntu. Legearen berritasun nagusia federazio-sistemaren funtsezko berrantolaketa da. Aurreko Legearen zioen azalpenean, berariaz onartzen zen federazio-egitura berregituratzeko beharra (dimentsio desegokia baitzuen), eta, Legearen bidez, irtenbide bat eman nahi izan zitzaion federazioen atomizazioari. Izan ere, kirol-federazio gehiegi daude, eta batzuen ezarpena ia hutsala bada ere, dituzten kostuak onartezinak dira altxor publikorako. Hori dela eta, 14/1998 Legean kirol-federazioak sortzeko baldintza berriak ezarri ziren, eta kirol-federazio gisa jarraitzeko dimentsio egokirik ez zuten kirol-federazioei emandako aitorpena errebokatzeko mekanismo batez hornitu ziren babes-administrazio publikoak.* | *"En el Título V se regula la estructura asociativa del deporte vasco en sus distintos segmentos organizativos y parte de la naturaleza específica del deporte, ya reconocida en el Tratado de Lisboa. La principal novedad de la Ley es el redimensionamiento sustancial del sistema federativo. La anterior Ley ya reconocía expresamente en su exposición de motivos la necesidad de reestructuración del entramado federativo, con una dimensión inadecuada, y trató de dar solución a la preocupante atomización federativa, con demasiadas federaciones deportivas, algunas con una implantación casi inexistente y, sin embargo, con unos costes inaceptables para el erario público. Por ello, en la Ley 14/1998 se establecieron nuevas condiciones para la creación de federaciones deportivas y se dotó a las Administraciones Públicas de tutela de un mecanismo de revocación del reconocimiento otorgado a aquellas federaciones deportivas que carecen de una dimensión adecuada para continuar existiendo como tales".* |
| Hau esan behar du: | Debe decir: |
| "V. tituluan euskal kiroleko antolakuntza-segmentuen elkarte-egitura arautzen da. Lisboako Itunean aitortutako kirolaren berariazko izaeratik abiatzen da, baina | "En el Título V se regula la estructura asociativa del deporte vasco en sus distintos segmentos organizativos y parte de la naturaleza específica del deporte, ya |

| | |
|---|---|
| kiroleko erakunde pribatuek arauak egiteko duten ahala antolamendu juridiko publikora egokitu behar dela gogoan izanda. Lehiaketazko kirolak ezin ditu alde batera utzi botere publikoetatik datozen arauak. Legearen berritasun nagusia federazio-sistemaren funtsezko berrantolaketa da. Aurreko Legearen zioen azalpenean, berariaz onartzen zen federazio-egitura berregituratzeko beharra (dimentsio desegokia baitzuen), eta, Legearen bidez, irtenbide bat eman nahi izan zitzaion federazioen atomizazioari. Izan ere, kirol-federazio gehiegi daude, eta batzuen ezarpena ia hutsala bada ere, dituzten kostuak onartezinak dira altxor publikorako. Hori dela eta, 14/1998 Legean kirol-federazioak sortzeko baldintza berriak ezarri ziren, eta kirol-federazio gisa jarraitzeko dimentsio egokirik ez zuten kirol-federazioei emandako aitorpena errebokatzeko mekanismo batez hornitu ziren babes-administrazio publikoak". | reconocida en el Tratado de Lisboa, pero sin olvidar que la potestad normativa de las organizaciones privadas del deporte se ha de acomodar al ordenamiento jurídico público. El deporte de competición no puede sustraerse a las normas emanadas de los poderes públicos. La principal novedad de la Ley es el redimensionamiento sustancial del sistema federativo. La anterior Ley ya reconocía expresamente en su exposición de motivos la necesidad de reestructuración del entramado federativo, con una dimensión inadecuada, y trató de dar solución a la preocupante atomización federativa, con demasiadas federaciones deportivas, algunas con una implantación casi inexistente y, sin embargo, con unos costes inaceptables para el erario público. Por ello, en la Ley 14/1998 se establecieron nuevas condiciones para la creación de federaciones deportivas y se dotó a las Administraciones Públicas de tutela de un mecanismo de revocación del reconocimiento otorgado a aquellas federaciones deportivas que carecen de una dimensión adecuada para continuar existiendo como tales". |
| JUSTIFIKAZIOA<br>Testu berriak argitasun handiagoa ematen dio legegintza-testuari. | JUSTIFICACIÓN<br>La nueva redacción da mayor claridad al texto legislativo. |

| 2. ZUZENKETA: GEHITZEKOA | ENMIENDA Nº 2 DE ADICIÓN |
|---|---|
| artikuluko hirugarren apartatuko ii letra bat gehitzea proposatzen da, honela idatzita: | Se propone adicionar una nueva letra en el artículo 2, apartado tercero, letra ii |
| | |
| "Jarduera fisikoaren eta kirolaren babes eta mezenasgo pribatua jarduketa publikoaren osagarri gisa sustatzeko neurriak hartzea (bereziki, emakumeen kirolaren, kirol egokituaren eta kirolean euskara sustatzeko programen babesa eta mezenasgoa)." | La adopción de medidas que incentiven el patrocinio y mecenazgo privado de la actividad física y del deporte como complemento de la actuación pública, especialmente el patrocinio y mecenazgo del deporte femenino, del deporte adaptado y de programas de fomento del euskera en el deporte" |
| JUSTIFIKAZIOA:<br>Euskal kirolaren errealitatean oinarritutako lege-testua hobetzen duten kontzeptuak gehitu dira. | JUSTIFICACION<br>Se añade conceptos que mejoran el texto legislativo basado en la realidad del deporte vasco |

| 3. ZUZENKETA: ALDATZEKOA | ENMIENDA Nº 3 DE MODIFICACIÓN |
|---|---|
| 19. artikulua aldatzeko zuzenketa | Enmienda de modificación del artículo 19 |
| Hau dioen lekuan: | Donde dice: |
| *Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta gainerako botere esleitzaileek, ahal dela, jarduera fisikoaren babesari lotuta dauden eta sektore publikoko kontratazioari buruzko araudi erregulatzailearekin bat datozen klausula sozialak txertatuko dituzte administrazio kontratuak esleitzeko prozeduretan, administrazio-klausula partikularren agirietan. Klausula horietan, gizonek eta emakumeek jarduera fisikoaren esparruan dituzten egoera eta premia desberdinak hartu beharko dira kontuan.* | *Las Administraciones Públicas y los demás poderes adjudicadores de la Comunidad Autónoma del País Vasco tratarán de incorporar en los pliegos de cláusulas administrativas particulares en los procedimientos de adjudicación de contratos del sector público aquellas cláusulas sociales relacionadas con el patrocinio a la actividad física que se ajusten a la normativa reguladora de la contratación administrativa. Tales cláusulas deberán tener en cuenta la diferente situación y necesidades de hombres y mujeres en el ámbito de la actividad física.* |
| Hau esan behar du: | Debe decir: |
| Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eta gainerako botere esleitzaileek, ahal dela, jarduera fisikoaren eta kirolaren babesari eta mezenasgoari lotuta dauden eta sektore publikoko kontratazioari buruzko araudi erregulatzailearekin bat datozen klausula sozialak txertatuko dituzte administrazio-kontratuak esleitzeko prozeduretan, administrazio-klausula partikularren agirietan. Klausula horietan, gizonek eta emakumeek jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan dituzten egoera eta premia desberdinak hartu beharko dira kontuan". | "Las Administraciones Públicas y los demás poderes adjudicadores de la Comunidad Autónoma del País Vasco tratarán de incorporar en los pliegos de cláusulas administrativas particulares en los procedimientos de adjudicación de contratos del sector público aquellas cláusulas sociales relacionadas con el patrocinio y el mecenazgo a la actividad física que se ajusten a la normativa reguladora de la contratación administrativa. Tales cláusulas deberán tener en cuenta la diferente situación y necesidades de hombres y mujeres en el ámbito de la actividad física" |
| JUSTIFIKAZIOA<br>Hobekuntza teknikoa | JUSTIFICACIÓN<br>Mejora técnica |